

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARIDASKO UDALA

Behin betiko onespena ematea azterketa eskubideen tasa arautzen duen zerga ordenantzari

Udalbatzak, 2022ko azaroaren 29an egindako osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion azterketa eskubideen tasa arautzen duen zerga ordenantzari. 2022ko abenduaren 7ko ALHAOn (140. zenbakian) argitaratu zen iragarkiaren bidez, jendaurrean jarri zen ordenantza hori eta, erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onesten da, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, oso-osorik argitaratzen da aipatutako ordenantza horren testua.

Erabaki eta ordenantza horien aurka interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin.

AZTERKETA ESKUBIDEEN TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA

1. artikulua. Oinarriak eta izaera

Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluek eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1982 Legearen 106. artikulua emandako ahalmenak erabiliz, eta Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 20. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, udal honek azterketa eskubideen tasa ezartzen du. Tasa hori zerga ordenantza honen arabera arautuko da.

2. artikulua. Zerga egitatea

Tasaren zerga egitatea funtzionarioak eta lan kontratudun langileak hautatzeko jarduera tekniko eta administratiboa da, karrerako funtzionarioen edo bitartekoen kidego edo eskaletara edo udal honek deitutako lan kontratudun langile finkoen kategorietara sartzeko edo igotzeko probetan parte hartzea eskatzen dutenen artean.

3. artikulua. Subjektu pasiboa

Tasaren subjektu pasiboak izango dira aurreko artikuluan aipatutako hautaprobetan izangai gisa izena ematea eskatzen duten pertsona fisikoak.

4. artikulua. Sortzapena eta ordaindu beharra

Hautaprobetan edo gaitasun probetan izena emateko eskabidea egiten den unean sortuko da tasa, eta beharrezkoa izango da tasa ordaintzea probetan parte hartu ahal izateko.

Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea zabalik dagoen bitartean ordainduko da tasa. Epe hori eskaintzen diren plazak erregimen desberdinetan betetzeko deialdiak arautzen dituzten oinarrietako bakoitzean zehaztuko da.

5. artikulua. Zerga oinarria eta kuota

1. Honako hauek izango dira ordenantza honetan araututako zerbitzuengatik ordaindu beharreko tarifak:

Taldea/azpitaldea	euro
C2r	40,00
E/AP	40,00

6. artikulua. Kudeaketa eta likidazioa**1. Tasa autolikidazio erregimenean eskatuko da.**

Subjektu pasiboek autolikidazioa egin beharko dute udal administrazioak horretarako prestatutako inprimakietan, eta baimendutako edozein banku erakundetan ordaindu beharko dute, hautaketa prozesuan izena emateko eskabidea aurkeztu aurretik. Eskabidearekin batera tasa ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

Hala ere, subjektu pasiboek hamar egun balioduneko epe bakar eta luzaezina izango dute, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesten duen dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, ez ordaintzeagatik edo tasa ordaintzearekin lotutako beste edozein akatsengatik baztertzea edo berariaz ez sartzea eragin duen akatsa zuzentzeko.

Azterketa eskubideen tasa osorik ordaindu izana egiaztatu ezean, izangaia hautaketa prozesutik kanpo geratuko da.

2. Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, tasaren zerga egitatea osatzen duen jarduera teknikoa eta/edo administratiboa egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuli egin beharko da.

Beraz, ez da azterketa eskubiderik itzuliko hautaprobak interesdunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baztertzen badira.

7. artikulua. Arau haustea eta zehapenak

Zerga arloko arau-hausteen kalifikazioari eta arau-hauste horiei dagozkien zehapenak zehazteari dagokionez, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean eta hura garatzen duten gainerako xedapenetan araututako araubidea aplikatuko da.

Azken xedapena

Ordenantza hau argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, behin betiko onarpena ALHAOn argitaratu ondoren, eta indarrean jarraituko du espresuki aldatu edo indargabetu arte.

Navaridas, 2023ko urtarrilaren 12a

Alkatea

MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ